

## Hitz eta pitz




### Josu Landa euskalgintzaz

Argia astekariak Josu Landari elkarrizketa egin dio. Kaleratu bezain laster oso osorik interneten sartu berri duen "Odol-bildua" izeneko eleberriaz ez ezik, militantziaz eta euskalgintzaz ere mintzatu da idazle aitza-tarra. Elkarrizketan dienez, "Gero eta guxi-ago daudenak ageriko mili-

*tanteak dira (...) ezkutukoa izan arren, askoz ere militante gehiago dago gaur egun duela 20 urte baino". Bestalde Josu Landaren hitzetan, "gero eta trapu zahar gehiago daude euskalgintzan euskal kultura gero eta industriago delako, enpresak gero eta egituratuagoak daude (...) gure artean konpetentzia garbia dago. Arazoa da hortaz ez dela hitz egiten, ezta pribatuan ere, eta barku bereko marine-lak bagina bezalako itxurá mantzentzen saiatzen gara".*

dio, eta lursailak uzteko bide zuzena lehiaketa publikoa dela esan du. Bestalde, Auzitegi Nagusiaren epaiaren arabera, zine aretoak erabilera pribatuak dira, eta lurzoru horretan ekipamendu publikoak baino ezin dira egin. SADEK epaia berehala indarrean jartzea eskatuko balu zine aretoak itxi eta horien ordez zerbitzu publikoak -kinolegia, liburutegia edo kultur etxea...- eraiki beharko lituzkete.

Odon Elorza, alkateak epaiaren berri izan bezain laster jakinarazi du helegitea aurkeztuko duela EAEko Auzitegi Nagusian. Odon Elorzak lehiaketa publikoa egiteko prest dagoela gaineratu du, baina, hori bai. Nuevo Desarrollo elkarteburu den Chopera familiak "urte hauetan guztietan llunben egin duen ekarpena kon-tuan hartuz".




## Gladys del Estali omenaldia

Duela 23 urte Tuteran Guardia Zibilak hildako Gladys del Estal ekologista donostiarrari omenaldia egingo zaio ekainaren 1ean. Urtero bezala, Eguzki talde ekologistak antolatuta, Egiako parkean egingo da omenaldia eta 19.30ean hasiko da. Ekitaldian Del Estalen borroka jarraitu beharra dagoela aldarrikatuko dute. Izan ere, Eguzki taldeak salatu duenez, energia nuklearraren arriskuak hor jarraitzen du. Aurten beste eskaera bat ere egingo du Eguzkik. Cristina Enea parkea berri-tzeko asmoa dagoenez, Gladysen omenezko monolitoa bere horretan uztea eskatuko dute, "Gladysekin batera parkearen alde lan egin duten guztiei eskainitako omenaldia baita".

## Haur Txokoen topaketa

Ekainaren 1ean, larunbata, Haur Txokoen bigarren topaketa egingo da Alderdi Ederren. Bidebietako Kabia, Altzako Roteta, Intxaurren-doko Buztin Txiki, Egiako Antxeta eta Loiolako Txominenea Haur Txokoei antolatuta dute topaketa. Egitasmo hau joan den urtean jarri zen abian, eta helburua Haur Txokoen lana donostiar guztiei ezagutaraztea da. Alderdi Ederrera gerturatzen diren haurrek, besteak beste, ludoteka handi batekin eta puzgarriekin gozatzeko aukera izango dute. Topaketa 17.00etan hasiko da.



## Koldo Mitxelena sariak

Koldo Mitxelena Literatur Lehiaketaren XIII. edizioaren sariak ekainaren 1ean, larunbata, banatuko dira. Ekitaldia Udaletxeko Udalbatzaren Aretoan izango da, 12.00etan hasita. Aurtengo edizioan inoiz baino haur eta gazte gehiagok parte hartu dute. Eskolarteko literatur lehiaketan 6 eta 18 urte bitarteko 1.077 neska-mutilek aurkeztu dituzte lanak. Euskararen Udal Patronatuak antolatutako lehiaketa hau Donostiako ikastetxeetako ikasleei zuzenduta dago. Guztira, bost maila daude: olerkia, ipuina, bertsoa, komikia eta gutuna. Orotara 25 sari banatuko dira, eta hauen artean epaima-haikideek 12 irabazle nagusi hautatuko dituzte.